

Gutun honen bidez, Mendialdea Mankomunitateak COVID-19ak eragin duen osasun krisi eta jarduera ekonomikoaren etenaldia dela eta, hartuko ditugun zerga- neurrien berri eman nahi dizu.

Jakina denez, egoera hau dela eta, saltokiek, bestelako lokalek eta hainbat enpresek euren zerbitzua eten behar izan dute. Etenaldi hau kasu batzuetan, martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartekoa baino ez da izan, eta beste kasu batzuetan, martxoaren 14an hasi zen eta oraindik ere ez du amaiera datarik.

Hondakinen bilketari dagokionez, oinarrizko zerbitzua da, eta ikusiko zenuen moduan, etenik gabe jarraitu da ematen. Hala ere, gure erabiltzaileetako batzuk, jarduera ekonomikoa eten behar izan duzuenek, hondakin bolumena ere murriztu duzue, edo sortzera ere ez zarete iritsi.

Hondakin bolumen murrizketak eta egoera honek sortuko dituen zailtasun ekonomikoak aintzat hartuta, **Mendialdea Mankomunitateak bere jarduera eten behar izan duten erabiltzaileekiko tasaren murrizketa proposatuko du, hain zuzen ere itxitak egon diren proportzioan.**

Murrizketa hau abuztuan egingo duzuen ordainketan nabarituko duzue. Izan ere, alde batetik, gaur egun ezin dugu jakin egoera honek zenbat iraungo duen, eta bestetik tasa murrizketa hau Batzar Orokorrak onartu behar du.

Beraz, horrela geldituko dira 2020ko tasak

1.Tasa: URTARRILA- APIRILA (Maiatzean pasako da): OHIKO TASA (murrizketa gabe) .

2.Tasa: MAIATZA- ABUZTUA (Abuztuan pasako da): TASA MURRIZTUA. Itxita egon diren denboraren arabera murrizketa, saltoki, elkarte edo enpresentzat.

3.Tasa: IRAILA - ABENDUA: (Abenduan pasako da): OHIKO TASA. (murrizketa gabe)

Mankomunitateak dituen aukeren baitan, hau iritzi dugu dela laguntza eman eta gure oinarrizko zerbitzuaren mantentzea ez kaltetzeko biderik egokiena.

Besterik gabe, zuen esanetara agurtzen naiz.

UNAI MIRANDA BERROETA. Lehendakaria.

Mediante este escrito, queremos informar de las medidas que la mancomunidad va a tomar con la tasa de basura, por la interrupción de la actividad que ha ocasionado la crisis sanitaria de COVID-19.

Como se sabe, los establecimientos, locales y algunas empresas han tenido que interrumpir su actividad por esta situación. En algunos casos ha sido entre el 30 de marzo y 9 de abril, y en otros casos, empezando desde el 14 de marzo y todavía sin determinar hasta cuándo.

En cuanto a la recogida de residuos, se trata de un servicio esencial e irrenunciable y como habrá comprobado, hemos dado servicio sin interrupción. De todas formas, como algunos usuarios han tenido que interrumpir su actividad económica, éstos han generado un menor volumen de residuos e incluso en ocasiones, no habrán llegado a generarlos.

Teniendo en cuenta la disminución del volumen de residuos y los problemas económicos originados por esta situación, **Mendialdea Mankomunitatea va a proponer la reducción de las tasas de los usuarios que hayan tenido que interrumpir su actividad, en proporción a los días que hayan tenido que mantener la inactividad.**

Esta reducción se aplicará en el pago a realizar en agosto. Por un lado, porque actualmente no sabemos la duración que va a tener esta situación, y por otro lado, porque esta reducción debe ser aprobada por la Junta General de la mancomunidad.

Por lo tanto, las tasas del año 2020, quedarán de la siguiente manera:

1ªTasa: ENERO- ABRIL (Se cobrará en Mayo): TASA HABITUAL (sin reducción)

2ªTasa: MAYO-AGOSTO (Se cobrará en agosto): TASA REDUCIDA. Para establecimientos, sociedades o empresas en proporción al tiempo que hayan estado cerrados los mismos.

3ªTasa: SEPTIEMBRE - DICIEMBRE: (Se cobrará en diciembre): TASA HABITUAL. (sin reducción)

De las posibilidades que tiene la Mancomunidad, creemos que esta es la más adecuada para que no resulte perjudicado mantener nuestro servicio esencial.

Sin otro particular, quedo a su disposición. Un cordial saludo.

UNAI MIRANDA BERROETA. Presidente